

Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 16,1ekoa da 2018ko azken hiruhilekoan

Iazko azken hiruhilekoko langabezia-tasarekin konparatuta puntu bateko igoera izan du

Biztanleriaren Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkestaren 2018ko laugarren hiruhilekoari dagozkion datuak argitaratu berri direla-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasari buruzkoak aurkezten ditu.

Zer da langabezia-tasa?

Enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen duten persona aktiboen ehunekoa adierazten du **langabezia-tasak**, hau da, lan egiteko moduan egonik, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsona langabeen ehunekoa. Definizio honetan ez dira sartzen, beraz, lan bila ez dabilzan ikasleak edo lan egin ezin duten gaigabetuak.


Zelako bilakaera izan du langabezia-tasak azken urtean?

2018ko laugarren hiruhilekoan Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa

% 16,1 izan da, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 1,3 puntu handiagoa (% 14,8 izan baitzen 2018ko hirugarren hiruhilekoan) eta 2017ko azken hiruhilekoan izandakoa baino puntu bat handiagoa (orduan % 15,1 izan baitzen).

Gazteen langabezia-tasak jarraitzen du Euskadiko biztanleria orokorrarenaren gaitetik; 2017ko azken hiruhilekoan alde hori lau puntukoa izatetik urtebete geroago 5,9 puntukoa izatera pasatu da.

Hiruhileko langabezia-tasaren bilakaera.
Euskadiko gazteen eta biztanleria orokorraren arteko alderaketa (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak (BJA) oinarri hartuta

Datu horiek guztiak Biztanleriaren Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkestatik datoz. Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) hiru hilean behin lantzen du inkesta hau Euskadiko 16 urtetik gorako biztanleriaren jarduera, okupazio eta langabezia egoera aztertzeko asmoz. Eustatek, hiru hilerik behin ere, 16 eta 29 urte bitarteko gazteei dagozkien datuak ematen dizkio Gazteen Euskal Behatokiari.

Datu hauek Gazteen Euskal Behatokiaren webgunearen estatistiketan ere kontsulta daitezke, Lana ataleko Jarduera, Okupazioa eta Langabezia azpiatalean, zehazki.